

Bolivar eta independentzia

Deia, 1983-07-22.

Gizarteko iraultza bakoitzak ba ditu berezko eraginak, bideak eta helburuak.

Espainiak Ameriketara zituen kolonietakoak ere bai bereak.

Hemen ez zen herri xehea altxa; aitzitik, altxa zirenak burgesia gazteak izan ziren; *gazteak*, hori bai!; eta lehenengo pausoetan, herrian aurkitzen zituzten oztupoak kezkatu zituzten gehien; herri xeheak ezin baitzuen uler bertako señorito haiek herri arruntarentzat gauza hoberik erakartzeko gauza izango zirenik; eta, gainera, urrutiko nagusikeriak ba zuen zeruaren babesik, Eliza eta Erregea batera baitzabiltzen, eta elizgizonen oharra entzuten hasia zen herri soila iraultzaileen aurka.

Gauzak ez ziren, beraz, hain sinpleak.

Eta zer zuten burgesak erregearen aurka?

Askatasunaren argia falta zitzaionten gazte horiei; Europatik etorri eta erregeari zerbitzen belaunaldietan hor jaiotako, bertako, zirenak, herriaren ardurak eta lanak bereak zituzten, baina aginte politikoa erregeak gordetzen zuen zuhur eta zitalki, itsasoz bestaldetik bidaltzen zizkieten gizonen bitartez; zergak jaso eta ezagutzen ez zituzten arazoak ere bere modura eta askotan herriaren kaltetan moldatzen zituzten. Zentralismo espainolak ba du tradizioa, eta txarra! Bestalde, ikasiak ziren gazte horiek Ipar-Ameriketako iraultza zuten esanplu gisa, eta Frantziako Iraultzaren eragina; lehenengoak pentsa arazi zien herriaren askatasuna lortzea posible zela, bigarrenak askatasun eta justiziaren egarria piztu zien.

Gainera, inoiz saiatzezkerotan, orain zen garaia, Espainiako monarkia Napoleonen aurrean makurtuta zegoen.

Isilpeko bilerak eta errepresioak tarteko, laster lortu zuten Caracaseko Udalean *klase gehienen* ordezkari antzeko zerbaitekin, eta 1810go apirilak 19 zituela izendatu zuten lehenengo Askatasunerako Batzarra. Espainiaren ordezkaria, Empanan Kapitan Generala, bota egin zuten.

Hemendik hasi zen hamabost urteko borroka odolko eta luzean, jarri zuen Bolivarrek bereak zituen talentua, ausardia, kemena eta eroapenez gainera, bere ondasun guztiak.

Zer geratu zitzaion egiteko! Bolivarri Espainia makur arazi eta gero?

Bolivar-en ametsa ez zen Hego Ameriketako herriak aginkeriatik libratzea bakarrik izan, herri horiek, Iparrean gertatu zen legez, Konfederazio bidez elkartzea eta indartzea baizik. Baina, noski, Espainiak hegoan ez zituen ingelesak Iparrean eraiki zituen demokraziarako hautamen bide eta egiturak antolatu eta Konfederazio bideak sortu; hau ez zen Bolibarren errua izan, espainolena baizik.

Mendetan egindako kalteak, bai han eta bai hemen, nola zuzendu orain, milagrorik gertatzen ez den XXgo saso honetan!